



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

2020BGCS0007

NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO ETA HIRUGARREN MUNDUAREN GARAPENERAKO DIRULAGUN- TZAK ARAUTZEKO OINARRIAK – 2026ko DEIALDIA.

1. XEDEA.

Oinarri hauetan jasotzen den deialdiaren xedea dirulaguntzak emateko erregimena finkatzea da, munduko herrialde pobreetako biztanleen baldintza sozio-ekonomikoak garatzera eta hobetzera zuzendutako jarduerak aurrera ateratzearen lankidetzaren programak antolatzea eta garatzera begira.

Oinarri hauek Udalbatzak 2025eko azaroaren 27an egindako ezohiko bilkuran onartutako 2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera arautzen dira, eta 2025/12/10eko GAO n txertatuta dago (2025. urteko 236. buletina).

2. ONURADUNAK.

Dirulaguntza hauek eska ditzaketenak dirua irabazteko asmorik gabeko erakundeak dira, legez eratuak, bere jarduerak deialdi honen xedearekin bat datozenak, eta baita kongregazio erlijiosoak eta banakakoak ere, dirulaguntzaren xedea den jarduera bat garatzen ari badira. Zumarragako eremuan ordezkaritza dutenek edo herriko pertsonekin lotura zuzena dutenek lehentasuna izango dute.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, berariaz, honakoak: Estatu, Autonomia Erkidego, Foru Aldundi eta aurrezki entitateen mendeko erakunde eta zerbitzuak.

BASES REGULADORAS DE LAS SUBVENCIONES A LA COOPERACIÓN INTERNACIONAL Y AL DESARROLLO EN EL TERCER MUNDO - CONVOCATORIA 2026.

1. OBJETO.

Es objeto de la convocatoria de las presentes Bases establecer el régimen de concesión de subvenciones para la organización y desarrollo de programas de cooperación para la realización de actuaciones dirigidas al desarrollo y mejora de las condiciones socio-económicas de la población de los países pobres del mundo.

Estas bases se rigen según lo establecido en el Plan Estratégico de Subvenciones 2026-2028 aprobado por el Ayuntamiento-Pleno, en sesión extraordinaria celebrada el día 27 de noviembre de 2025, e inserto en el BOG 10/12/2025 (boletín nº 236 del año 2025).

2. PERSONAS BENEFICIARIAS.

Podrán solicitar subvención Instituciones legalmente constituidas, sin ánimo de lucro, cuyas actividades coincidan con el objeto de esta convocatoria, así como congregaciones religiosas y personas individuales que estén desarrollando una actividad objeto de subvención teniendo prioridad las que tengan representación en el ámbito de Zumarraga o tengan un vínculo directo con personas del municipio.

Quedan expresamente excluidas de acceder a esta convocatoria: las instituciones y servicios, dependientes del Estado, la Administración Autónoma, la



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

2020BGCS0007

Eskatzaileek deialdi honetako dirulaguntzetarako sarbidea izateko baldintzak honakoak dira:

a) Elkartasuna eta baliabide pribatuak mobilizatzeko gaitasuna izatea, eta beste erakunde batzuetatik ere dirulaguntzak lortzea. Horretarako, azken bi urteko balantzea aurkeztuko dute eta, hala egokituz gero, jasotako dirulaguntzak eta hauen sorburu eta zenbatekoa zehaztu, sortutako baliabide propioekin batera.

b) Eskarmentu egiaztatua izatea subsistentzia eta garapenerako lankidetzak jardueretan. Honetarako, azken urtean egindako jardueren memoria aurkeztuko dute.

c) Diruz lagundutako ekintzei eusteko gaitasuna izatea. Erakunde eskatzaileek dituzten giza baliabideei buruzko txosten bat erantsi beharko dute, horien lotura eta dedikazioaren ezaugarriak argituz, udal, estatu edo atzerriko beste erakunde batzuekin dituzten hartu-eman garrantzitsuenekin batera.

Eskatzaileek zehaztu egin beharko dute deialdira aurkezten dituzten ekintzak beste erakunde batzuei egindako eskarrietan sartu dituzten, edo beste erakunde batzuen laguntza hartu duten. Horrela bada, laguntza horien zerrenda aurkeztu beharko dute, kopuruak eta helburuak zehaztuz, dirulaguntzak ordaintzeko unean bikoizketarik gerta ez dadin eta baliabideak ahalik eta ondoen banatzea ahalbidetearren.

3. ESKABIDEAK ETA AURKEZTEKO EPEAK.

Diputación Foral y las Entidades de Ahorro.

Para que los solicitantes tengan acceso a las subvenciones de esta convocatoria deberán reunir las siguientes condiciones:

a) Tener capacidad de movilizar la solidaridad y los recursos privados, así como conseguir subvenciones de otros organismos. Para ello, presentará el balance de los dos últimos años, en su caso, especificando las subvenciones recibidas, su origen y cuantía, así como los recursos propios generados.

b) Poseer experiencia contrastada en acciones de Cooperación a la subsistencia y al desarrollo. Con este fin presentará una memoria de las actividades realizadas en el último año.

c) Tener capacidad para sostener las acciones subvencionadas. Las organizaciones solicitantes deberán adjuntar un informe de los recursos humanos con que cuentan, especificando las características de su vinculación y dedicación, así como las relaciones más significativas que mantiene con otras organizaciones locales, estatales o extranjeras.

Los solicitantes deberán especificar si las acciones que presentan a la convocatoria han sido objeto de solicitud o concesión de ayudas por otras entidades. En este supuesto deberán presentar relación de las mismas, detallando su cuantía y finalidad, al objeto de evitar duplicidades en el pago de subvenciones y posibilitar el reparto más adecuado de los recursos.

3. SOLICITUDES Y PLAZO DE PRESENTACION.



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

2020BGCS0007

Eskaerak pertsona ordezkari eta arduradunek formalizatuko dituzte Udalak prestaturiko instantzia eredu ofiziala betez.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea: Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Eskaria osatzeke baldin badago, elkarte, erakunde edo taldeek 10 eguneko epea izango dute, beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu ahal izateko. Ezarritako epean egin ezean, eskaria artxibatu egingo da, beste inolako tramiterik gabe.

Eskaera eta dokumentazio osagarria Internet bidez aurkeztu beharko dira Zumarragako Udaleko egoitza elektronikoko diru-laguntzen ataritik.

Salbuespen modura, Zumarragan kokatutako elkarten kasuan, banaka hartuta, eta elkarte horietako taldeen kasuan, gizarte-jarduera jakin bat egiteko bildu ohi direnean, paperean aurkeztu ahal izango dute eskaera Udaleko Erregistro Orokorrean herritarrek hartzeko ordutegiaren barruan edo korreo zertifikatu bidez.

4. EKARRI BEHARREKO AGIRIAK.

Eskabidearekin batera, Zumarragako Udalak ezarrita dituen diru-laguntza programak arautzen dituzten Oinarri Arauetako 6. artikuluan zerrendatutako dokumentazioa

Las solicitudes deberán formalizarse por parte del representante o persona responsable, en el modelo de instancia oficial elaborado por el Ayuntamiento.

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes Bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Si la solicitud estuviera incompleta, las asociaciones, entidades o grupos contarán con un plazo de 10 días para aportar la documentación necesaria. Si en el plazo establecido no lo hicieran, se procederá al archivo de la solicitud sin más trámite.

La solicitud y la documentación complementaria deberán presentarse obligatoriamente vía Internet, a través del portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica del Ayuntamiento de Zumarraga.

Excepcionalmente, en el caso de asociaciones ubicadas en Zumarraga individualmente consideradas y grupos de éstas que se reúnan habitual y ocasionalmente para la realización de una determinada actividad social, la solicitud se podrá presentar en papel mediante su entrega en el Registro General del Ayuntamiento, dentro de los horarios de atención al público, o por correo certificado.

4. DOCUMENTACION A APORTAR.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación establecida en el artículo 6 de las Bases Reguladoras de los Programas de Subvenciones



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

2020BGCS0007

aurkeztu beharko da (2023ko otsailaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 28. zb.).

Horren haritik, eta aipatu artikulua jasotzen duen bezala, Zumarragako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu ematen dituen dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen elkarreragingarritasunerako plataforman:

- Pertsona eta/edo entitatearen nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztapena.
- Foru Ogasunekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztapena.

Udalak berak zuzenean ofizioz jasoko ditu Zumarragako Udalaren zergen eta zehapenen ordainketan egunean egoteari buruzko datuak, baita udalerrian erroldatuta egotearen datuak ere.

Interesdunak Zumarragako Udala NISAE elkarreragingarritasunerako plataformatik beste Administrazio Publikoetan berak aurkeztu dituen datuak eskuratzeko aukerari uko egiteko eskubidea dauka (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua).

Kasu horretan, interesdunak ukatze horren arrazoiak justifikatu beharko lituzke eta dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu (2016/679 (EB) Araudia, Datuen Babeserako 21. artikulua).

Gainera, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

establecidos por el Ayuntamiento de Zumarraga (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 28 del 10 de febrero 2023).

En este sentido, y tal y como recoge el citado artículo, el Ayuntamiento de Zumarraga va a verificar los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones que otorgue en las distintas convocatorias, desde la plataforma de interoperabilidad de datos NISAE:

- Consulta de datos de identidad de la persona y/o de la entidad.
- Consulta de estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.
- Consulta de estar al corriente de sus obligaciones tributarias frente a las Haciendas Forales.

Los datos de estar al corriente del pago de tributos y sanciones con el Ayuntamiento de Zumarraga, así como los datos de empadronamiento en el municipio, serán recabados directamente de oficio por el propio Ayuntamiento.

La persona interesada tiene derecho a oponerse al acceso, a través de la plataforma de interoperabilidad NISAE, por parte del Ayuntamiento de Zumarraga a los datos que figuren en el resto de Administraciones Públicas (artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo).

En ese caso, el interesado deberá justificar las razones de su oposición y aportar los datos o documentos correspondientes (artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos).

Además, se deberá presentar la siguiente documentación:



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

2020BGCS0007

a) Kasuan kasuko Elkarteen Erregistroko izen emateari buruzko ziurtagiri eguneratuaren fotokopia; honetan, alderdi hauek jaso beharko dira: Erregistroko izen ematearen data, eta Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza nagusiaren edota ordezkaritza iraunkorren helbidea.

b) Erakunde eskatzailearen estatutuen fotokopia, dagokion Elkarteen Erregistroan erregistratuen.

Betebehar honetatik salbuetsiak daude aurreko bi deialdietan aurkeztu duten eskatzaileek, betiere oinarri hauetako d) puntua behar adina bermaturik delarik.

c) Beste instituzio, erakunde eta abarri egindako dirulaguntza eskarien zerrenda; eta, dagoeneko eman dizkieten kasuan, dirulaguntza horien zenbateko eta xedea zehaztuta, dirulaguntzak emateko unean bikoizketarik gerta ez dadin eta baliabideak ahalik eta ondoen esleitzea ahalbidetzearen.

d) Sarrera eta gastuen aurrekontu xehekatua, hala egokituz gero adieraziz euroaren eta erabiltzen den dibisaren arteko truke-tasa, jartzen diren baliabide propioekin batera.

e) Egin nahi den proiektuari buruzko informazioa. Honek, besteak beste, hurrenak jasoko ditu:

- Proiektuaren izena.
- Proiektu osoaren deskripzio laburra, fitxako ereduaren arabera (1. eranskina ikusi).
- Kokapen zehatza, mapa adierazgarria erantsiz.
- Ekintzaren onuradun izango den biztanleria.

a) Fotocopia del certificado actualizado de inscripción en el Registro de Asociaciones que corresponda en el que conste: Fecha de inscripción en el registro, dirección de la sede central y/o delegaciones permanentes en la Comunidad Autónoma Vasca.

b) Fotocopia de los Estatutos de la organización solicitante registrados en el Registro de Asociaciones que corresponda.

Estarán exentos de cumplir con esta obligación los solicitantes que los hubieren presentado dentro de las dos convocatorias correspondientes a ejercicios anteriores a la presente, siempre que esté suficientemente acreditado el punto d) de la presente base.

c) Relación de solicitudes de subvención formuladas ante otras instituciones, organismos, etc. o en su caso, de las que estuvieran otorgadas, detallando su cuantía y finalidad, al objeto de evitar duplicidades en la concesión de subvenciones y posibilitar la más adecuada asignación de los recursos.

d) Presupuesto detallado de ingresos y gastos, indicando en su caso el tipo de cambio entre el euro y la divisa utilizada, así como los recursos propios que se aportan.

e) Información sobre el proyecto que se pretende realizar, entre la que necesariamente se señalará:

- Título.
- Descripción resumida de todo el proyecto, según modelo ficha (ver Anexo 1).
- Ubicación detallada, adjuntando mapa ilustrativo.



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

2020BGCS0007

- Espero diren emaitzak.
- Proiektua gauzatzeko egutegia.
- Kanpo laguntza amaitzean ekintzak izango duen bideragarritasuna -ekonomia, arlo instituzionala, ingurumena, teknologia eta genero kontuak aintzat hartuz-.

f) Azken bi urteko balantzea, jasotako dirulaguntzak eta hauen sorburu eta zenbatekoa zehaztuz, sortutako baliabide propioekin batera.

g) Azken urtean egindako jardueren memoria. Identifikatu egin beharko dira Zumarragan gauzatutako jarduerak, sentsibilizazio lanekin edo laguntza humanitarioarekin lotutakoez batera.

h) Erakundeak dauzkan giza baliabideei (pertsonal liberatua eta boluntarioa) buruzko txostena, horien lotura eta dedikazioaren ezaugarriak argituz, udal, estatu edo atzerriko beste erakunde batzuekin dituzten hartu-eman garrantzitsuenekin batera.

i) Bigarren Oinarrian adierazitako dokumentuak.

Udalak beharrezko iritzitako guztia eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei, aurkezten den proiektua baloratu ahal izateko behar duela ikusten badu.

5. ERABAKIA.

Eskabideak izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasunaren saila izango da eta Gizarte Zerbitzuen eta

- Población beneficiaria de la acción.
- Resultados previstos.
- Calendario de ejecución del proyecto.
- Viabilidad de la acción al finalizar la ayuda externa: Económica, institucional, medioambiental, tecnológica, cuestiones de género.

f) Balance económico de los dos últimos años especificando las subvenciones recibidas, su origen y cuantía, así como los recursos propios generados.

g) Memoria de las actividades realizadas en el último año. Se deberán identificar aquellas actividades realizadas en Zumarraga, así como las relacionadas con labores de sensibilización o de ayuda humanitaria.

h) Informe de los recursos humanos con los que cuenta (personal liberado y voluntario), especificando las características de su vinculación y dedicación, así como las relaciones más significativas que mantienen con otras organizaciones locales, estatales o extranjeras.

i) Los documentos expresados en la Base Segunda.

El Ayuntamiento podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración del proyecto presentado.

5. RESOLUCION.

La unidad administrativa encargada de tramitar las solicitudes será el departamento de Servicios Sociales e Igualdad, siendo competente para



Berdintasunaren Saileko zinegotzi delegatua da ebazteko eskuduna.

6. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskarien artean dirulaguntzak banatzeko, honela jardungo da:

1. Lehen-lehenik, puntuazio bat emango zaie aurkezten diren proiektu edota ekintzei; horretarako jarraituko den baremoa hau da:

a) Biztanle hartzaileen garapen ekonomiko eta sozialeko beharrei eta, bereziki, sektore desfaboratuenean oinarritako beharrei erantzutea. Gehienez puntu 1.

b) Onuradunen giza garapenerako ahalmena areagotzea eta, hala egokituz gero, horiek ekintzaren partaide bihurtzea, hain zuzen kudeaketa-lana beren gainean geratzen denean ekintza horri jarraipena eman ahal izan diezaioten. Gehienez puntu 1.

c) Proiektua komunitatearen garapeneko programen esparruan gauzatzea, komunitate onuradunaren kideen partaidetza eta prestakuntza sustatzea, eta toki mailako erakundearen garapena bultzatzea. Gehienez puntu 1.

d) Garapen bidean dauden herrialdeetako errealitatearekiko interesa sustatzea hiritarren artean, edota lankidetzarako etorkizuneko proiektuetarako partaidetzaren oinarria izatea. Gehienez puntu 1.

e) Proposatutako ekintzek bere bideragarritasuna bermatuta izatea,

su resolución la concejala delegada del Área de Servicios Sociales e Igualdad.

6. CRITERIOS DE VALORACION DE LAS SOLICITUDES.

La asignación de las subvenciones entre las solicitudes que cumplan los requisitos establecidos se hará de la siguiente forma:

1. En primer lugar se procederá a asignar una puntuación a los proyectos y/ o acciones presentadas según el siguiente baremo:

a) Que respondan a las necesidades de desarrollo económico y social de las poblaciones destinatarias y, en particular, a las necesidades básicas de los sectores más desfavorecidos. Hasta 1 punto.

b) Que incrementen la capacidad de desarrollo humano de los beneficiarios/ as y, en su caso, les haga participar en la acción, de forma que puedan continuarla una vez revierta en ellos su gestión. Hasta 1 punto.

c) Que se realicen en el marco de programas de desarrollo comunitarios, fomenten la participación y la formación de los miembros de la comunidad beneficiaria y potencien el desarrollo de organizaciones locales. Hasta 1 punto.

d) Que promuevan el interés de los ciudadanos por la realidad de los países en vías de desarrollo y/o que sirvan de base para la participación en futuros proyectos de cooperación. Hasta 1 punto.

e) Que las acciones propuestas tengan garantizada su viabilidad,



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

2020BGCS0007

batez ere aurreikusitako helburuak betetzeko herrialde onuradunak duen gaitasunaren bidez. Gehienez puntu 1.

f) Proposatutako ekintzek genero ikuspegia ere jasotzea. Gehienez puntu 1.

g) Jarraipen hobea ziurtatzearren, lehentasunezkoa izango da erakunde eskatzaileak, bere antolaketa-eskemaren barnean, Zumarragako pertsonen partaidetza izatea. Gehienez 4 puntu.

2. Puntuazioa eman ondoren, eta eskari kopurua handia izanez gero agian kreditua denei erantzuteko adinakoa ez dela izango kontuan hartuta, ematen den laguntzak emaitza bideragarriak berma ditzan Udalak aukeraketa bat egingo du proiektu/ekintzen artean. Horretarako, automatikoki baztertu egingo ditu 5 puntu baino gehiago lortzen ez dituztenak.

Behin gutxiengo puntuazioa lortu ez duten proiektuak kanpo utzi ondoren, Korporazioak, betiere bildutako puntuazioa errespetatuz, puntuazio handiena lortu dutenak aukeratu ahalko ditu dagokien diru-laguntza esleituz (diru-laguntzaren gehiengo kantidadea agortu arte – 7. oinarrian adierazia) euren ustez eta era arrazoituan guztiz edo hein handi batean babestuak izan behar diren proiektuen kostuan lagunduz.

7. EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZAREN GEHIENEO ZENBATEKOA ETA DIRU KOPURU HORREN IZAERA.

Dirulaguntza deialdi hau gauzatzera bideratutako kopurua 50.000 €koa da, 2026eko ekitaldiari dagokiona, eta Herritartasun Batzordean integratzen

especialmente a través de la capacidad de actuación del país beneficiario para cumplir los objetivos previstos. Hasta 1 punto.

f) Que las acciones propuestas tengan vinculada un enfoque de género. Hasta 1 punto

g) Para garantizar un mejor seguimiento se considerará prioritario: Que el Organismo solicitante, dentro de su organización, cuente con la participación de personas de Zumarraga. Hasta 4 puntos.

2. Asignada una puntuación, y ante la posibilidad de que el número de solicitudes sea elevado y el crédito asignado no suficiente para atender todas, con la intención de que la ayuda concedida garantice resultados viables, el Ayuntamiento hará una selección de los proyectos/acciones. A tal efecto, quedarán automáticamente eliminados aquellos que no obtengan más de 5 puntos.

Una vez excluidos los proyectos que no superen la puntuación mínima, la Corporación, respetando en todo caso la valoración obtenida, podrá seleccionar los de mayor puntuación, asignando el importe de subvención que corresponda (hasta agotar la cuantía del importe máximo de subvención -señalado en la Base 7ª -) sufragando el costo de los proyectos que a su juicio y de forma motivada, merezcan ser cubiertos en su mayor parte o totalmente.

7. IMPORTE MAXIMO SUBVENCIONES A CONCEDER Y CARÁCTER DE DICHA DOTACION.

La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de Subvenciones asciende a 50.000 €



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

2020BGCS0007

den, 2023ko azaroaren 28ko osoko bilkura berezia erabakiaren arabera, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna arloaren aurrekontuko honako diru-ataletatik emango dira:

- 0213.481.230.20.02 **150** *Gizarte lankidetzako proiektuak*, 50.000 eurokoa.

Aurrekontuaren kopurua iritsiko ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubide duten eskabide guztiak betetzeko, dagoen dirua urtean egon diren eskari guztien artean banatuko da proportzionalki, partida agortu arte.

Hala ere, aipatu kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

8. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA ETA EPEAK. AURRERAKINEN AUKERA.

Dirulaguntzaren guztirako zenbatekoa ezin izango da, inola, bera bakarrik edo beste herri administrazio batzuetatik zein beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako dirulaguntza edo laguntzekin batera, erakunde onuradunak garatu behar duen jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Onartutako dirulaguntza bi epetan ordainduko da:

- Udal akordioa hartu ondoren, dirulaguntzaren zenbatekoaren %80 ordainduko da.
- Bigarren eta azken ordainketa, %20ko zatia, aldeko txostena egin ondoren eta programa gauzatzeko

correspondiente al ejercicio de 2026, con cargo a la siguiente partida del presupuesto del área de Servicios Sociales e Igualdad que se integra en la Comisión de Ciudadanía, según acuerdo de Pleno extraordinario del 28 de noviembre de 2023:

- 0213.481.230.20.02 **150** *Proyectos de cooperación al desarrollo*, por un importe de 50.000 euros.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a subvención, se procederá al reparto proporcional del dinero presupuestado entre todas las solicitudes presentadas en el año, hasta agotar la partida.

Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución de Presupuesto Municipal.

8. FORMA Y PLAZOS DE ABONO DE LA SUBVENCIÓN. POSIBILIDAD DE ANTICIPOS.

El importe total de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.

El abono de la subvención concedida se efectuará en dos plazos:

- Un primer pago del 80% del importe de la subvención, tras la adopción del acuerdo municipal.
- Un segundo y último pago, del 20% restante, previo informe favorable y



arduraduntzat adierazitako pertsonari diruaren transferentzia egin izanaren frogagiria aurkeztuta egingo da.

9. HASIERA ETA EXEKUZIO EPEA ETA DIRULAGUNTZAREN NORAKOA FROGATZEKO EPEAK ETA ERAK.

Erakunde edota pertsona onuradunek 12 hilabeteko epean (Udalak dirulaguntza emateko erabakia onartu eta hurrengo egunetik hasita) aurkeztu beharko diote Udalari ondoren ezartzen den dokumentazioa:

a) Egindako programa edo jardueraren memoria zehatza.

b) Sarrera eta gastuen balantzea.

c) Jatorrizko fakturak, edo fakturen kopiak, emandako dirulaguntzaren guztirako zenbatekoa hartzen dutenak. Jatorrizko fakturarik aurkeztu ez bada, GKEk emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, kopia horiek egiazkoak direla frogatzearren. Kasu bietan, aurkeztutako frogagiriaren (fakturen) zerrenda erantsi beharko da.

Arestian aipatutako agiriak aurkeztu ezean, emandako diru-laguntza galduko da besterik gabe.

Artikulu honek zehazten duen epea eskatutako dokumentazioa aurkezteko, hiru hilabete gehiago luzatu daiteke, beti ere onuradunak hala eskatuta eta eskaeraren arrazoiak behar den bezala justifikatuta.

una vez que se presente justificación del gasto del importe total de la subvención concedida, mediante la justificación de la transferencia a la persona señalada como responsable de la ejecución del programa.

9. PLAZO DE INICIO Y EJECUCION Y FORMA Y PLAZO DE JUSTIFICACION DEL DESTINO DE LA SUBVENCION.

Las organizaciones y/o personas beneficiarias estarán obligadas a presentar al Ayuntamiento y dentro del plazo de 12 meses contados a partir del día siguiente al del acuerdo municipal de concesión de subvención, la documentación que a continuación se establece:

a) Memoria detallada del programa o actividad realizada.

b) Balance de ingresos y gastos.

c) Facturas originales, o copias de las facturas por el importe total de la subvención concedida. En caso de no presentar facturas originales, se deberá presentar un certificado expedido por la ONG acreditando la autenticidad de dichas copias. En ambos casos, se adjuntará una relación de justificantes (facturas) presentados.

En caso de no presentar la documentación anteriormente comentada, se perderá automáticamente la subvención concedida.

El plazo de presentación de la documentación requerida en presente artículo podrá ser prorrogado por un plazo máximo de otros tres meses, a instancia del beneficiario, en la que habrá de justificar convenientemente el motivo de su petición.



ZUMARRAGAKO

UDALA

—
ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

2020BGCS0007

10. JAKINARAZPENA.

Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege ondorio guztietarako.

10. NOTIFICACION.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.